

Nafarroako Kulturaren Atari Digitala Nafarroako kultura-ondarearen objektu digitalak antolatuta biltzen dituen liburutegi edo biltegi bat da, baina, horrez gainera, Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren beste nahi irmo bati ere erantzuten dio: herritar ororentzat ikusgai eta eskuragarri jartzen ditu haren baliabide kultural guztiak. Kulturaren eskuragarritasunari, aberasteari eta hedapen digitalari begirako konpromiso bat betetzen du, araututa dagoena *Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean*.

Lege hori aitzindaria da bere arloan, eta «Kulturarako irispidea izateko eskubidea» izeneko kapituluaren berariaz aipatzen du «Kulturarako irispide birtuala. Nafarroako Kulturaren Atari Digitala». Honela dio:

*Kultura-arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako Kulturaren Atari Digitala sustatuko du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuneko zerbitzu publiko gisa, herritarrek haren bitartez eskura dezaten kultur informazioa eta dokumentazioa, eta Nafarroako kultur esparru digitala garatu eta sendotzen laguntzeko.*

Nabarmendu beharra dago Ataria eraiki eta ezartzeko zeharka eta elkarlanean aritu direla Nafarroako Gobernuak hainbat sail. Alde batetik, Vianako Printzea Erakundea – Kultura Zuzendaritza Nagusia, bertako Zerbitzuak (Artxiboak eta Ondare Dokumentala, Liburutegiak, Museoak eta Ondare Historikoa) eta Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atala proiektuaren buru izan dira, eta bestetik, Telekomunikazio eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusia kudeaketa teknikoaz eta teknologikoaz arduratu da.

Sorreratik pentsatu zenez, etorkizunean, atariak foru-administrazioaren baliabide kultural guztiak bildu nahi ditu, baita beste datu-iturri batzuetan daudenak ere. Une honetan, artxibo, liburutegi eta museoetako 281.500 dokumentu eta pieza baino gehiago daude argitaratuta, foru-administrazioaren informazio-sistemetatik eskuratuak. Zehazki:

267.000 [Artxibo Irekitik](#) hartutakoak dira. Bertan, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko baliabide digitalak argitaratzen dira, bertako fototekakoak, baita Artxibo Garaikidekoak ere.

12.900 [Nafarroako Liburutegi Digitaletik](#) hartuak dira.

1.600 Nafarroako Museoko fitxak dira, Espainiako Museo Bildumen Sare Digitalera esportatzen direnak.